

Herri indigenei egindako kalteengatik barkamena eskatu du Kanadako Elkarte Medikoak

Kanadako Elkarte Medikoak (CMA) [barkamena eskatu die herri indigenei](#), praktika medikoengatik edo haien gabeziengatik historikoki eragin dizkieten kalte fisiko eta psikologikoengatik. Barkamena eskatzearekin batera txosten bat aurkeztu du, zeinetan medikuen jardura antietikoak biltzen baitira; tartean, antzuteak eta tratamendu esperimentalak (haie-tako batzuk, haurrekin).

CMAk onartu du gaur egun ere badagoela diskriminazioa, eta jatorri indigena duten pertsonen osasun-zerbitzu eskasa jasotzeko arrisku handiagoa dutela, isuriaren ondorioz. Horren erakusgarri, datu batzuk: gainerako herritarrek baino bizi-itxaropen laburragoa dute, eta diabetes, hipertentsio eta buruko gaixotasun gehiago.



CMAk barkamena eskatu die herri indigenei, ekitaldi ofizial batean. ARG.: CMA.

Eragindako kalteak aitortzeaz eta barkamena eskatzeaz gain, adiskidetzeko pausoak ere zehaztu ditu CMAk, hala nola aukera handiagoak ematea herri indigenetako pertsonen medikuntzan lan egin dezaten. ●

Zulo beltz batek jaurtitako zorrotadarik luzeenak aurkitu dituzte

Zulo beltz batek jaurtitako zorrotadarik luzeenak aurkitu ditu nazioarteko astronomo-talde batek. Bi zorrotada dira, eta bien artean 23 milioi argi-urteko luzera dute (11,5 argi-urte bakoitzak), edo Esne Bidearen diametroa 140 aldiz. [Nature aldizkarian eman dute aurkikuntzaren berri](#).



Porfirion zorrotada-parearen irudikapena. ARG.: E. Wernquist/D. Nelson (IllustrisTNG Collaboration)/M. Oei.

Porfirion jarri diote izena zorrotada-pareari. Unibertsoak 6.300 milioi urte zituenekoa da, gaur egun duen adinaren (13.800 milioi) erdia baino gutxiago zuenekoa. Urruneko galaxia baten erdigunean dagoen zulo beltz supermasibo batetik ateratzen dira, alde batera eta bestera, eta bilioika eguzkiren pareko potentzia dute.

Aurkikuntza horrek iradokitzen du litekeena dela halako zorrotada erraldoiek uste baino eragin handiagoa izatea unibertso gaztean galaxiak eratzeko orduan. Izan ere, materia jaurtitzen dute distantzia handietara eta milioika urtetan. Materia horrek galaxien arteko hutsune kosmikoak zeharkatu ditzake, eta litekeena da horren eraginez unibertsoaren eboluzioa azkartu izana. ●



[Albiste gehiago, webgunean](#)